

Egunerokoak

Igor Albizu Florez

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2005



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Egunerokoak

Igor Albizu Florez

Julene Azpeitia 18. ipuin lehiaketa

2005

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Igor Albizu Florez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Nire urtarok

Uda, 12 lo nire 39. udazkenerako

Aitonak ni etorri baino lehen joan ziren, baina ziur apartak izan zirela. Amona Jenobeba ere ez nuen ezagutu baina amona Martina, amona Martina asko maite nuen nik.

Gozotegikoak, aldamenen inor ez zegoela eta, pastelak utzi zizkigun etxean. Gauean atea jo nien pastelak emateko, baina ez nuen erantzunik jaso. Hurrengo egunean berdin. Ez zen normala. Laugarren egunean, aspaldi utzi ziguten giltza erabiltzea erabaki nuen. Barrura sartu nintzen. Oihu egin nuen. Inork ez zidan erantzun. Eta azkeneko gelan aurkitu nuen. Lurrean botata zegoen jaioberriaren hilotza.

Ez zen jaioberri arrunta. Burusoila zen denak bezala, baina bere laurogei kiloek desberdintasun puntu bat ematen zioten. Idazten ere bazekien. Ez naiz idaztea kaltegarria denik esatera ausartuko, baina egunerokoa idazten ari zela eman zion bihotzekoak gizajoari. Eguneroko hura irakurri nuen. Baita haren ondoan zeuden beste biak ere.

Tximeleta eder izan nahi dut. Eta horretan saiatuko naiz. Inoiz ez da berandu. Beti gaude garaiz. Bai horixe.

Egunerokoa

44 urte eta 304 egun, asteazkena

Aitona aparta izan nuen. Jaunartzea egin nuenean eguneroko bat oparitu zidan. Esan zidan egunero egiten nituen gauzak bertan idazteko. Eta zenbat urte eta egun nituen jartzeko ere esan zidan.

Ez dakit non dagoen eguneroko hura. Ziur asko ganbaran egongo da, kartoizko kaxa batean gordeta aspaldiko beste traste batzuekin batera. Ez daukat ganbarako hauts artean galtzeko gogorik. Horregatik gaur eguneroko hau idazten hasi naiz erosi dudan ordenagailu berrian. Badaezpada ere, birusek nire kontakizunak jan ez ditzaten, inprimatu egingo dut noizbehinka.

Berrogeita lau urte ditut. Gauza asko egin ditut baina oraindik beste asko egin nahiko nituzke. Denbora nahi baino azkarrago doa.

Karrera bukatu nuen, lanean hasi nintzen, ezkondu nintzen, bi seme-alaba ekarri ditugu mundura eta pisua ordaintzeko ez zaigu gehiegi falta. Gauzak ondo joan zaizkidala esan dezaket. Ezin naiz kexatu.

Nire momentu onenean nagoela iruditzen zait. Osasuntsu sentitzen naiz eta gaztetako zorakeriak atzean utzita, burua bere tokian daukadala badakit. Ez aldameneko Txominek bezala.

Gaur ere hor zebiltzan bere seme-alabak eta hauen lagun tropela etxeko aterpean artista lanetan. Batzuk baloiarekin, horman mural postmodernoa marrazten. Besteak patinekin, marmolezko zoruan lokatzezko collagea egiten. Urrutian ikusi naute eta ozta-ozta baina ospa egin didate. Baloi zikin hori zulatzeke gogoarekin geratu naiz beraz. Orain arte zulatu dizkiedan laurak balkoian dauzkat zintzilik, ondo ikus ditzaten. Baina alferrik da. Txominekin hitz egitea ere denbora galtzea besterik ez da. "Utz iezaiezu, umeak dira eta". Memelo halakoa.

Ez dakit zergatik utzi zien Marik gure giltza. Edozer gauza gertatuta ere auzokoek giltza izateak segurtasuna ematen omen dio. Segurtasuna? Edozein egunetan kakanarru horiek suhiltzaileetara jolastera sartuko zaizkigu...

Bihar goiz jaiki behar dut lanera joateko, beraz, banoa ohera.

44 urte eta 312 egun, osteguna

Gaur egun handia da. Sorpresa ederra daukat Marirentzat. Gure Corsa txikia oparitu behar diot. Hemendik aurrera, erosketak egitera doanean ez dit autoa behar dudan galdetu beharko. Zer pozik jarriko den nire Maritxu. Edozer gauza egingo nuke Mari pozik ikustearren. Horregatik erosi dut auto berria.

Ez dago batere gaizki aukeratu dudan Mercedes beltza. Ez zait oso merke atera baina berdin da, Txomini jarriko zaion aurpegiaren ikuskizunak ez dauka preziorik. Orain dela bi hilabete Passat urdina ekarri zuenean auto berria behar genuela konturatu nintzen. Nola daiteke artaburu horrek guk baino auto hobea izatea? Gauzak bere tokian daude berriro ere.

Kurba politak, bolumen handiko aurrealdea, atzealde ederra, beltzarana, bere azal distiratsua laztanduz zulotxo ilunera iritsi naiz, mangera lodia goxo-goxo sartu diot, eta likido guztia isuri dudan bitartean, arnasestuka, aspaldi sentitu gabeko zerbait sentitu dut. Mertxe, Mertxe, zutaz maitemintzen hasia naiz!

Gustura nago beraz. A zer trastea ekarri dudan. Hegan etorri gara. Eta hori euria barra-barra ari zuela. Gasolindegitik irtetean, urrutian aterkirik gabe auto-stop egiten ari ziren bi gazte ikusi ditugu. Mertxe urduri samar jarri da. Lasaitu zedin azeleragailuari sakatu diot. Gajoa, ez zuen ba benetan pentsatuko blai egindako eskale haiei bere larru leuna bustitzen utziko nienik? Paretik pasatzean sortu dugun haize zurrunbiloak ia bota ditu gazteak. Ziur tximaluzeari tximak lehortu zaizkiola bat-batean.

Ene Mertxe maitea, zenbat maite zaitudan...

44 urte eta 320 egun, ostirala

Gaur greba eguna izan da. Lanorduak direla eta greba egin dute fabrikan.

Goizean goiz asanblada informatiboa izan dugu. Sindikatukoek betikoa eman digute gosaltzeko: lan baldintza duinak txurroekin, segurtasuna gurin eta marmeladarekin, lanordu gutxiago kafean bustia... Ni etxetik ederki gosalduta etorri naiz eta ez dut ezer tragatu. Beste batzuk berriz tripa bete-bete egin dute eta hor joan dira oihuka kartel bat paseatuz digestioa egitera.

Oso gozoki gozoak eskaintzen dizkigute beti sindikatukoek. Nire gustuko opilak piezak diseinatzetik ateratzen dira ordea. Oso sinplea da. Zenbat eta pieza gehiago egin, orduan eta euro zaporeko pastel gehiago sabelera. Orain aparteko orduak kendu nahi dizkigute, eta ohiko lanordua bost ordutan murriztu ere bai. Ederki dago hori, baina pieza gutxiago diseinatuko nituzke eta hori ez zait komeni. Eskiatzeko apartamentuaren alokairua, auto berria, ostegun, ostiral eta larunbateko afariak, etxeko teilatuaren konponketa... Aspalditik nabil belaontzi bat erosteko aurreztu nahian, baina ezin dut. Utziko balidate, zenbait igandetan ere joango nintzateke lanera. Beraz, besteak kanpoan haizea hartzen zeuden bitartean, ni piezak diseinatzen gelditu naiz barruan.

Hamabietan ogitartekoa jatera joan naiz goiko terrazara. Oraindik han zeuden lankideak garrasika, ondoko fabrikakoekin batera. Beraien artean Txomin, nola ez. Bat-batean, galdategiaren atzetik kartel bat agertu da gazte tropel baten aurrean. "Isurketarik EZ" zioen kartelak. Hauek ekologisten kontura egin dute hamaiketakoa beraz.

Ekologia. Birus arriskutsua eta kutsakorra. Ez dakit Mari ere erdi kutsaturik ez ote dagoen. Hor ibiltzen da papera eta latak bereizten. Lehen dena poltsa bakar batera botatzen genuen baina orain gauza bakoitza bere ontzira bota behar da. Lana guk egin behar orain. Zertarako ordaintzen ditugu ba zabortegiko langileak?

Nahi dutena egin dezatela ekologistek baina bakean dagoena bakean utz dezatela. Urrutira joan gabe, orain dela hiru hilabete beste isun bat jarri ziguten fabrikan. Errekara botatzen dugun uretan ez dakit zerren kontzentrazio altuegia zegoela eta taka, isuna. Ekologisten kexengatik ipintzen dituzte horrelako lege aldrebesak. Beti isuri izan dugu ibaira, baina ahal den modu garbienean beti ere. Euri jasan zain egoten gara pilaturiko hondakinak isurtzeko. Eta inork ez digu eskertzen ahalegin hau. Ia ez da antzematen orduan, errekak berez kolore iluna baitarama. Eta zer gertatu da? Ezertxo ere ez. Bizirik gaude behintzat, ezta?

Bihar larunbata. Pieza batzuk egitera joan beharko dut.

44 urte eta 329 egun, igandea

Marik mendira asteburu pasa joatea proposatu zidan asteartean. Ez dut Mari ezagutzen. Mendira? Urteak dira mendira ez ginela joaten. Berak aspaldiko garaiak gogoratzeak ilusioa egiten diola esan dit, baina ziur nago emakumeentzako aldizkariren batean zelulitisarentzat ona dela edo antzekoren zerbait irakurri duela.

Umeak Aneren baserrian egon dira asteburuan. Etxean behingoz asteburu lasaia pasatzeko aukera! Baina aspaldi ikasi nuen Mariren dialektoan

proposamen hitzaren esanahia zein den. Mendian izan gara beraz asteburu honetan.

Aldapak alde guztietatik, kolore eta tamaina guztietako zomorroak, ongi etorria egin digun liztor orkestra barne, distira iluneko eta itxura esferikoko ardi gozokiak, larruzko zapata berriei kutis garbiketa egiteko lokatz fresko-freskoa... Zoragarria.

Eskerrak turismo pixka bat egin dugun. Herrixka politak daude bai. Berrehun urte atzeraturik daude baina. Zertan pasatuko ote dute denbora bertakoek? Taberna bakoitzean dauden hiru basurde buruek aztarna bat eman didate. Oraindik arkua eta geziak erabiltzen ote dituzte?

Aitortu beharra daukat mendian jatekoa ederki sartzen dela. Kepak gomendaturiko jatetxe batean ederki bazkaldu genuen atzo. Etxeko barazkiekin egindako entsalada epela, perretxiko tortilla, eperra sagar konpotarekin eta postre bezala mamia eztiarekin. Nahiko ondo.

Tripa ederki bete ondoren paseotxo bat eman genuen, azken finean pixka bat sufritzera joan gara. Marik Zuriza aldera joateko ilusia zeukan. Elkarrekin hasi ginenean dezente joaten ginen bertara kanpinean. Baina orduan gazte eta tonto ginen. Ez dakit non dagoen oihal ziztrin hura. Beharbada zaborretara bota genuen.

Hamar minutuko paseotxo bat eman genuen Zuriza inguruan. Nahikoa pare bat argazki ateratzeko. Menditik neka-neka zetozen gazte bikote bati eskatu genien argazkia ateratzeko. Ezkaurre igo omen zuten. Nik, aspaldi nonbaiten entzun nuena esanez, nire filosofia azaldu nien. Mendia magaletik ederragoa dela esan nien, puntara joatean perspektiba galdu egiten dela. Barre txikia egin zuten eta kanpinera joan ziren, pasta lehorra afaltzera. Gizajoak. Nik Ezkaurrerri argazkia atera nion fabrikari bertan egon naizela ikus dezaten. Ez naiz makala, ez horixe. Ziur nago Patxi eta Mikel herriko kaleetatik atera ere egin gabe egon direla asteburu osoan. Alfer halakoak!

Ederki afaldu genuen gero, ostatuko jatetxean oraingoan. Gero ohera. Gero lotara esatea gustatuko litzaidake baina burko erraldoia alde batetik, elizako kanpai hotsa beste aldetik eta hontzen uluak alde guztietatik, egunsentia iritsi da lo hartu dudanerako.

Dagoeneko etxean gaude baina. Eskerrak.

44 urte eta 353 egun, asteazkena

Gaur egun ederra izan da, etxera etorri naizen arte behintzat. Monster familiarekin bizitzea tokatu zait. Hau da marka hau.

Fabrikari eguna nahiko arin joan zait. Gaur Patxiren urtebetetzea izan da eta lanetik irtetean elkartera joan gara ospatzera. Patxiren gurasoak Salamancakoak dira eta ohitura dauka hango txorizoa ekartzekoa. Kategoriakoa, bai jauna. Urteko ardo pixka batekin lagunduta, ederki bete dugu sabela.

Gero herrira joan gara pare bat txikito hartzera. Mikelek beste alaba bat izan behar duela esan digu. Adarra jo diogu, izan ere bere semetxoak esnezalearen antza izugarria du. Patxik Mikelek berak ere esnezalearen tankera badaukala

esan du orduan. Nahiko barre egin dugu. Ziur Mikel zuzenean bere amarengana joan dela galderatxo batzuk egitera...

Zumea tabernan koadrilakoekin egin dut topo. Hauekin beste pare bat txikito hartu ditut. Joxek onddo eta gibelurdin batzuk bildu dituela esan digu. Beraz egina daukagu osteguneko afariaren menua. Baina hori bihar izango da. Gaur etxean afaltzea tokatu zait.

Gustura joan naiz etxera arratsalde pasa lagunekin eginda. Baina atea zabaldu orduko zakur biboteduna zaunka hasi zait. "Nondik zatoz? Bada ordua. Orain ere edanda zatoz". Beti kontu berdinak entzun behar. Nik bakean uzteko esan diot, lan eta lan jardun dudala eta isiltzeko. Ez da ordea berehalakoan isildu. Gaiztoa da gainera. Nik zerbait gaizki egiteko zain egoten da aizkora kopetaren erdi-erdian sartzeko. Telebistaren aurrean eseri naiz eta hor etorri zait "Zer? Mahaia jartzen ez al didazu lagundu behar? Arropa horrekin afaldu behar al duzu? Zapatak hor utzi behar al dituzu?". Sorgin halakoa, ni zirikatzen nola gozatzen duen. Beste zereginik ez baitauka. Eskuineko besotik muturrekoa irteteko zorian izan dut, baina eutsi egin diot.

Eta hori bakarrik izango balitz gaitzerdi. Txikiek ere errespetua galdu didate. Amari entzundakoak errepikatzen dituzte loroen modura. Gaur ere afaltzeko orduan Aitorrek "Aitatxo, zergatik daukazu hain gorri begiak? Aita, gaur ere ardo usaina daukazu" eta Naroa ondotik barrez. Bakoitzari ondo merezitako zaplazteko bana eman diet eta hor joan dira negarrez bere gelara postrea probatu ere egin gabe. Ikasiko dute.

Mari ere negarrez hasi eta etxetik joango dela eta horrelakoak esanez hasi da orduan. Beti antzerki berdina. Nazkaturik nago. Eskerrak etzi badoazen. Saloun hiru aste pasatuko dituzte. Ni lan egiten geldituko naiz. A zer bakea.

44 urte eta 357 egun, igandea

Ganbara txukuntzen aritu naiz. Eguneroko zaharra aurkitu dut. Negar malkoak irteten zaizkit.

Nire itzulipurdiak

Bederatzi bira eta berrehun eta hirurogeita bi itzulipurdi

Asko maite dut nire aitona. Gaur jaunartzea egin dut eta eguneroko hau oparitu dit. Esan dit egunero egiten ditudan gauzak bertan idazteko. Eman ditudan bira eta itzulipurdiak zenbatzeko ere agindu dit. Aitonak urtebetetze egunean eguzkiari beste bira bat eman diola esaten du beti. Nik bederatzi bira eman dizkiot. Goizero-goizero musu batez agurtzen nauenean gaur ere eguzkiari ipurdia erakutsi diogu esaten du. Beste itzulipurdi bat eman dugu! oihukatzen du ozen. Opari pila bat jaso ditut. Izeba Josepak mikroskopio bat oparitu dit. Osaba Balentinek larruzko baloi bat. Osaba Manuelek euskal selekzioko elastiko bat. Izeba Arantxak patin batzuk. Tartan panpinatxo bat ipini dute eta jatetxeko neskak niri eman dit. Oso polita da. Amatzok garbitu egin du eta ohe ondoan ipini du Maradonaren irudiaren azpian. Zer ona den Maradona. Handitan Maradona bezala izan nahi dut. Bazkaldu ondoren

jolastera joan naiz lehengusuekin. Euria ari zuen eta aterpe batera joan gara. Ainhoa patinekin ibili da. Ipurdiko batzuk hartu ditu eta guk barre egin dugu. Ni futbolekin ibili naiz. Gu Euskal Herria ginen eta besteak Kamerun. Lau eta bi galtzen ari ginen gizon hura etorri denean. Asko haserretu da bere etxe azpian jolasten ari ginelako. Baloia kendu eta aterki puntarekin zulo bat egin dio. Osaba Balentinek beste baloi bat erosiko didala esan dit. Gizon hari barkatzeko ere esan dit. Gaixo omen dago. Ozpinduta. Oso arrunta omen da helduen artean. Bihar goiz jaiki nahi dut patinetan ibiltzera joateko beraz banao ohera.

Hamabi bira eta 102 itzulipurdi

Amonaren etxean ez dago telebistarik. Amatzok etxetik irtetea aitona paritu zidan egunerokoa hartu du eta denbora pasa zerbait idazteko esan dit. Izeba Arantxaren gelan nago. Ane panpinekin jolasten ari da. Amatzok, amona eta aitona sukaldean daude orain. Ematen du amatzok isildu dela. Ez zait batere gustatzen amatzok negarrez entzutea.

Ikastolan ozpina nola egiten den azaldu ziguten behin. Ardoa denborarekin ozpin bihurtzen omen da erreazio kimiko baten ondorioz. Normalean egun batzuk behar dira, baina aitaxoren barnean minutu batzuen kontua besterik ez da.

la arratsaldero txikiteoan ibiltzen da aitatzok bere lagunekin. Etxera etortzean gustura dago. Kantari sartzen da atetik, irribarrea ezpainetan duela. Ardoak on egiten dio aitatzok. Baina pixkanaka ardoa ozpin bihurtzen joaten da. Eta orduan edozer gauzagarik haserretzen da. Batez ere amak hitz egiten badio. Ez dut ulertzen zergatik, baina argi dago amak eragin berezia daukala ardoa ozpin bihurtzeko prozesuan. Edozein gauza esaten diola ere, arropak txukun uzteko, zapatak jasotzeko, edota perrexila txikitzen laguntzeko, aita sutan jartzen da. Amari izugarriak botatzen dizkio. Ane eta ni gelan sartzen gara, inguruan bagaude zaplaztekoa jasotzeko arriskua ez baitabil oso urruti. Afaldu ondoren, aitatzok telebistaren aurrean lo hartzen du, eta amatzok sukaldea jasotzen bukatzen duenerako lurrundu zaio ozpin guztia. Amarekin bakeak egitera joaten da baina amak ez du nahi izaten begi bistan ikusi. Berririo haserretzen dira orduan.

Gaur ere horrela gertatu da.

17 bira eta itzulipurdi mordoxka bat

Gaur greba eguna izan da. Ingurumenaren alde greba egin dugu eskolan.

Lehen orduan asanblada informatiboa izan dugu. Ni Arnas Berde taldeko kide naizenez hitz egitea tokatu zait. Lehenbizi munduko egoerari buruz hitz egin dugu. Ondoren, euskal egoerari heldu diogu. Baina batez ere herriko kontuez aritu gara: bazterretan pilaturiko zaborra, isurketak egiteko erraztasuna duten enpresak, errepide berriaren proiektua...

Bozketa izan dugu ondoren. Baiezkoa atera da. Eskolatik irten eta ekintzetara pasa gara orduan.

Lehenengo ekintza zabor bilketa izan da. Bi taldetan banatu gara. Talde bati erreka tokatu zaio eta besteari inguruko bide bazter eta zelaiak. Ni errekan ibili naiz. Iker eta Ibon ere bai. Katuskek min pixka bat eman didate. Handiagoak

erosi beharko ditut hurrengorako. Denetik jaso dugu. Gehiena bazterretan zeuden plastiko poltsak. Ontziak eta latak ere dezente. Erosketa gurditxo bat, zapata zahar batzuk, hozkailu bat, auto baten ihes-hodia eta bizikleta baten gurpil okerra ere jaso ditugu. Arrantza ederra egin dugu errekan. Besteek ere zakar asko bildu dute. Udaletxearen atarian utzi dugu dena.

Eguneko bigarren ekintza fabriken isurketa salatzea izan da. Kartel bat prestatu dugu eta manifa bat egin dugu herrian zehar. Udaletxetik abiatu eta industrialdean amaitu dugu. Han daude herriko fabrika kutsakorrenak: paper-fabrika, galdategia, galvanizazio enpresa, kontserba-fabrika... Kasualitatez hango langileak ere greban aurkitu ditugu, gurea baino kartel handiago baten atzean. Lanordu gutxiago eskatzen ari ziren. Pixka bat hitz egin dugu eta elkarri babesa ematen bukatu dugu. Ordu pila bat lan egitera behartzen dietela esan digute, larunbatetan ere bai askotan. Hala ere, langile batzuk gustura daudela esan digute. Lanean gelditu omen dira. Hau ez dut oso ondo ulertu.

Bihar larunbata! Ikerrekin palan jokatzera joango naiz.

20 bira eta 53 itzulipurdi

Gaur egun handia da. Azterketak amaitu ditugu!

Mertxe nire aurrean eseri da eta bere kamiseta tirantedunari eta batez ere honek barruan zeukanari begira, hasieran ezin izan dut kontzentratu. Irakaslearen irribarre faltsuari hiru segundoz begiratzea nahikoa izan da ordea berotasun guztiak desagerrarazteko.

Ekin! Arma bezala arkatza eta goma nituela, hiru orduz egon naiz borrokan. Hortxe-hortxe ibiliko naiz, baina gainditzeko itxaropena badaukat eta ez da gutxi.

Nola ez, gaur ere autobusak alde egin digu eta auto-stop egin behar izan dugu. Nahiko zorte izan dugu hasieran. Bost minutu generamatzala emakume bat gelditu da. Erdibidea arte eraman gaitu. Haritz aurrean joan da. Ni berriz atzean, umearen aulkitxoaren ondoan. Eskerrak eman dizkiogu eta auto-stop egitera berriro ere.

Orduan hasi dira komeriak. Haritzi laino beltz hark Fisikako irakaslearen antza zeukala esan diot. Eta barrez hastea eta euri zaparrada botatzea dena bat izan da. Aterkirik gabe bi minututan blai egin gara. Bost minutu, hamar minutu, ordu erdi, Fisikako irakaslea ezulka gelditu gabe eta auto guztiak aurrera.

Bat-batean, Mercedes beltz bat ikusi dugu gasolindegiairean parean. Mugimendu arraro bat egin du eta "honek bai" esan diot Haritzi. Bai zera, ziztu bizian pasa zaigu paretik eta goitik behera lokatzez ziprztindu gaitu. Txukunak geratu dira Haritzen tximak.

Azkenean ezagun batek ekarri gaitu Corsa zahar batean. Eskerrak berari. Autoan doazenek ez dakite ondo nola eskertzen den.

Bihar gripearekin. Gelako afaria daukagu baina ez dut berehalakoan galduko. A zer mozkorra harrapatuko dugun. Nire kutuna ere joango da. Ea oraingoan amore ematen duen.

Ene Mertxe maitea, zenbat maite zaitudan...

22 bira eta 274 itzulipurdi (54 itzulipurdi Marirekin)

Marik mendira asteburu pasa joatea proposatu zidan asteartean. Aurtengo inauterietan ezagutu nuen Mari. A zer neska puska. Ametsetan nagoela iruditzen zait.

Izugarrizko ilusioz hartu nuen Mariren proposamena. Mendian izan gara beraz asteburu honetan.

Zurizako kanpinera joan gara. Nire telazko palazioan egin dugu lo, izarrez argituriko zuhaitz eta harri erraldioen hirian. Oilo-ipurdia jarri zait oraingoan ere, ilargia gauaren erdian onkixina ematera atera zaigunean. Zoriontasuna arnasarekin batera sartzen da Zurizan. Zoragarria.

Ondo jatea garrantzitsua da mendian. Ederki dakit hori nik. Mariri inoiz probatu dituen makarroi goxoenak egin dizkiot. Mendi buelta egin ondoren, dutxa hartzearekin batera, ez dago makarroia tomatearekin jatea bezalako plazerik.

Atzo Txamantxoia igo genuen. Kanpinera iristear geundela bikote batek argazia ateratzeko eskatu zigun. Lerdo itxura urrutira hartu nion gizonari. Txamantxoian izan ginela esatean zera bota ez zigun ba potolo txit argiak, mendia ederragoa dela urrunetik, bertara joatean perspektiba galtzen dela. Nik barre faltsu bat egin nion. Ez dakit puntatik mendiaren ikuspegia galtzen den ala ez, baina hango handitasunak eta edertasunak nire buruaren perspektiba argia ematen didate behintzat. Sarri handiegia ikusten dugu geure burua hemen behetik. Ondo etortzen da noizbehinka buruan daramatzagun haizeak mendi puntan libre uztea.

Seko egin dut lo bart gauean. Egunsentia begiak ixterako iritsi da.

Dagoeneko etxean gaude baina. Lastima.

Itzulipurdi berriak

44 bira eta 364 itzulipurdi

Aitonak benetan asko maite ninduen. Urtebetetze egunean eguzkiari beste bira bat eman niola esaten zidan beti. Bihar berrogeita bosgarren bira beteko dut. Itzulipurdi bat besterik ez zait falta.

Azkeneko bira hauetan pixka bat galdurik ibili naiz. Asko aldatu naizela konturatu naiz. Eta ez naiz kilo bihurtu diren ileei buruz ari. Normala da aldatzea, ona ere bai. Har itsusia tximeleta eder bihurtu ohi da. Ni ordea har bihurtu den tximeleta bat bezala sentitzen naiz.

Baina isuritako negar malkoek garbiketa lana egin dute eta ozpin guztia kendu didate. Ilusioz beterik nago orain. Berriz jaio naizela sentitzen dut. Inoiz ez da beran